

600 m2-ko gimnasio berria Paco Yoldi kiroldegiarentzat

Uda honetan egingo dira obrak eta urrian jarriko da martxan

Donostia Kirolak hobekuntza-lan garrantzitsuak egingo ditu aurtengo udan Paco Yoldi igerilekuen kiroldegian, hirian gehien erabiltzen den kiroldegian, Kirol Txartelera abonatuak pertsonak gimnasioa gero eta gehiago erabiltzeko egiten duten eskaerari erantzuteko.

Kiroldegi honek gaur egun bi gimnasio ditu, bata muskulaziokoa eta bestea kardiobaskularrekoa, aforo, irisgarritasun eta ekipamendu-arazo garrantzitsuak dituztenak.

Donostia Kirolak 322.000 euroko inbertsioa egingo du lan hori egiteko, eta horri gehitu beharko zaio hilean 10.000 euro inguru renting kontzeptuan. Gimnasio berri hau urriaren hasieran jarriko da martxan.

Instalazio berriak

Gimnasio berria gaur egun taberna eta jarduera-aretoak dauden eremuan kokatuko da, eta 600 m² hartuko ditu. Lau eremu nagusi izango ditu: eremu kardiobaskularra, muskulazio-makinen eremua, pisu libreko eremua eta entrenamendu funtzionaleko eremua. Makinek Bluetooth teknologia izango dute kanpoko dispositiboekin konektatu ahal izateko, erabiltzaileek beren entrenamenduak erregistratu ahal izateko eta gimnasioko monitoreak aholkatutako lan kontrolatuago bat egin ahal izateko.

Eremu kardiobaskularrean mota desberdinetako 55 makina egongo dira (korrika egiteko zintak, bizikletak, arraun-ergometroak, eliptikoak, etab.), merkatuko makina modernoenetako batzuk barne, hala nola eski-simulagailuak, zinta kurbatuak, air bikeak edo eskailera-simulagailuak.

Muskulazio-eremuan edo indarra makina gidatuekin lantzeko eremuan, beste 17 makina jarriko dira, muskulu talde guztiak lantzeko: bizepsak, kuadrizepsak, deltoideak, abdominalak, etab.

Pisu libreko eremuak hainbat motatako bankuak, "sentadillak" egiteko makinak, power-rack jasotze-plataformak eta abar izango ditu. Pisu libreen aukera zabala ere egongo da, barra olinpikoak eta 2 kg-tik 42 kg-ra bitarteko mankuernak barne.

Azkenik, gune funtzionalean poleak, eraztunak edo TRX jartzeko egitura jarriko da, luzatze-eremu batez gain. Lan funtzional honetarako beste material batzuk ere jarriko dira eremu horretan, hala nola dominatuen barrak, boxeozakua, baloi funtzionalak, bataila-sokak, minitranpak, etab.

Gimnasioko ekipamendua renting-aren bidez kontratatuko da, inbertsioa zuzenean egin beharrean. Horrek hobekuntza handiak ekarriko ditu makinen mantentze-lanetan eta

eguneratzean. Adibidez, matxurak 72 orduko epean konpondu beharko dira gehienez, eta epe hori gaindituz gero, makina antzeko beste batez ordezkatu da. Gainera, kontratu honek bost urteko iraupena izango du, eta horien bukaeran gimnasioa osorik berrituko da.

Beste hobekuntzak

Obra horiekin beste ekintza batzuk ere egin beharko dira, hala nola igerilekuetako harmailetarako sarbide berria, komun berriak eta egonleku bat, mahaiak eta vending makina osasungarriak dituen, igerileku txikiko begiratokiaren ondoan. Gainera, egungo gimnasioek jarduera aretoak hartuko dituzte, ikastaroak antolatzeko azalera handiagoarekin.